



PATRIKAK ARIN

BEZaren igoera handiena izan duten sektoreetako ordezkarien gogoetak 20



Soluzioak
zure esku

BOZKATU  ehbildu

999 €*
Garbigailua
7 kg., 1.400 r.p.m

999 €*
Lehorgailua bero
bonba 8 kg.

599 €*
Ontzi-garbigailua
G 4100 SC Brws Special

Ospatu Mielerekin kalitatearen 111 urte

Miele garbigailuek zure arroparen zainketa ezin hobean 111 urte bete dituzte.

Hau ospatzeko Mielek Edition 111 aurkezten dizu, ospakizun berezietako prezioan eskainiz etxetresna elektrikoaren sorta zabala.

Gerturatu Milar Larramendira eta aprobetxatu Mieleren kalitatea etxera eramateko aukera ezin hobea.

Azpeitia-Azkoitiko Mieleren banatzaile ofiziala:



Julio Urkijo, 16
20720 Azkoitia-Gipuzkoa
Tel.: 943 851 897



Made in
Germany

Miele
SIEMPRE MEJOR

uztarria

Argitaratzailea. Uztarrria

Komunikazio Taldea. Azpeitia

Egoitza. Perez Arregi plaza 1, behea, (Azpeitia, 20730)

Telefonoa eta faxa. 943 15 03 58

Posta elektronikoa.

uztarria@uztarria.com

Posta kutxa. 227, Azpeitia

Lege gordailua. SS-860/2000

Zenbakia. 143.a (2012ko urria)

Urtea. XIII.a (1999ko azaroan sortu)

Maiztasuna. Hilabetekaria

Diseinua. Eregi Komunikazio eta

Euskara Zerbitzuak

Publizitatea. 685 730792 /

oalegria@uztarria.com

Bazkidetza. 943 15 03 58

Tirada. 2.500 ale hilero

Inprimategia. Leitzaran Grafikak

Azaleko argazkia. Eregi

Web orrialdea.

www.uztarria.com

Uztarrria herri aldizkariaren

laguntzaileak (erakunde publikoak)



Gipuzkoako
Foru Aldundia



azpeitia
udala

Uztarririk

Bai Euskarari

Oharra. Uztarrria

Komunikazio

Taldeak ez du

bere gain hartzen

herri aldizkarian

adierazitako

esanen eta

iritzien

erantzukizunik



2012KO URRIKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



iritzia

Inkesta. Kirol-jarduera edo ikastaro batetan izena eman al duzu? **13**

mamia

Iñigo Azkue. Futbol munduko beste ikuspegi bat, epailearena **04**

Klik! Bisitariari bisita: Xabier Eguzkitzeren egun bat, argazkitan **16**

Hipotekak janda. Etxea ordaindu ezin geratu, eta saltzea lortu kendu aurretik **24**

jakiteko

Atzera begira. Pilar Aizpitarte, 80 urte eta kontatzeko asko **34**

Hantxe bertan. Ivan Astigarraga, Alemanian haize berrien bila **37**


Ba al dakizu sanjuandegin
Extremadurarekin elkartruketa
sakontzeko bidean direla? Uztarrria

egin zaitez bazkide Uztarrrian




943 15 03 58

Herri aldizkariak gain, Uztarrriaren produktuak ere eskuratuko dituzu. Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **12 liburu** (behekoak), **CD 1** (ondokoa) eta liburuxka biografikoak atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



1.060 bazkide **30** euro dira urtean.
gara dagoeneko Uztarrrian; 126.540 euroko aurrekontua du
eskerrik asko denei. Uztarrria 2012. urterako.



Liburuxka biografikoak. Julian Bereziartua, Leo Etxeberría, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra'

IÑIGO AZKUE

futboleko epailea

“Futbole an ez dut uste etsairik dudarik”

Futbol munduko ohiko protagonistak entrenatzaileak eta jokalariek badira ere, Azkue epaileak txanponaren beste aurpegia erakutsi dio Uztarriari. 📧📞 Eneritz Albizu

Iñigo Azkue azpeitiarra 21 urterekin hasi zen epaile lanetan eta pasa den denboraldian erabaki du ogibidea uztea. Urte guzti horietan txoko eta jende ugari ezagutu ditu eta dioenez, horixe da mundu honek laga dion gauzarik onena. Maila baxuenetik hasi eta punta-puntako partidak arbitratzera iritsi da: Zarautzen eman zion hasiera ibilbideari, eta Malagan amaitu zuen, joan den maiatzean.

Zenbat urte daramazkizulan honetan? Epaile lanean hasi aurretik zer lotura zenuen futbolarekin?

Gazterik hasi nintzen eta 14 urte egin ditut mundu honetan. Epaile izan aurretik futboleko jolasten nuen Amara Berrin, baina jubeni-

len aroa amaitu zitzaidanean, epaile izateko iragarki bat ikusi eta probatzea erabaki nuen.

Zer mailatan arbitratu duzu?

Lehen arbitro bezala 2B mailara iritsi naiz. Lehen eta bigarren mailan laugarren epaile bezala egon naiz.

Gogoratzen al duzu arbitratu zenuen lehen partida?

Noski, 1998. urteko abenduan izan zen: nesken partida lurraldekoia, Zarautz-Añorga. Gustura eta kontzentratuta aritu nintzen: lehen partidetan ez baduzu zure beharra gustura egiten, lana zaila da.

Zein izan da urte guzti haue-tan arbitratu duzun nor-gehiagoka bereziena?

||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1977ko apirilak 25.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Azpeitia. ||| **Lanbidea.** Irakaslea.



Hasierako partidetatik, erregional lehen mailan epaitu nuen Ilintxa-Ordizia partida hautatuko nuke: irabazlea igo egiten zen, eta sekulako giroa zegoen. Hainbeste jenderen aurrean lan egiten nuen lehen aldia izan zen: 1.500 pertsona egongo ziren.

Askotan erabaki esanguratsuak hartu beharko dituzuden bora gutxian. Gogoan duzun huts egiterik gogorrena?

Partida hasi aurretik, badakit akats portzentaje bat izango dudala: nire helburua ahalik eta huts egite gutxiena egin, eta okerre azken emaitzan eraginik ez izatea da. Jokalariek ez dute gehiegi laguntzen honetan: Euskal Herrian zein Estatu espainiarrean tranpa



Van Nistelrooyren aldaketa egiten, Malagan.

egiteak saria du. Futbolean, epaile bat engainatzean, maltzurra ez da jokalaria, epailea da bere lana gaizki egiten dabilena: zuri engainatzen zaituzte, eta zu zara erruduna. Oraindik gogoan dut hutselite larri bat: Rayo Vallecano-Lugo epaitu nuenean, nire akats bategatik Rayo Vallecanok bi puntu galdu zituen. 2B mailan zegoen eta urte hartan igo zen 2. mailara. Hala ere, nik ez daukat arazorik nire akatsak onartzeko: ez partida amaitu ondoren, ez momentuan bertan ohartzen banaiz ere.

Denetik egongo den arren, nolako jarrera izaten dute jokalariek zurekiko? Zelaitik kanpo, nolakoa da zuen harremana?

Batzuek txartela atera bezain laster euren akatsak onartu eta eskua ematen dizute, baina ez da ohikoena. Gehienetan, txartel gorria ateratzean, gaizki jokatu dutela dakiten arren, kexaka etortzen zaizkizu. Zelaitik kanpora, normalean, gauzak beste era batera ikusten dira: futboleko lagunak bakarrik ditut, ez dut uste etsairik dudarik.

Ikusleen esanak ba al dute eraginik zure lanean? Nola moldatzen zara hauek kontuan ez izateko?

Harrigarria dirudien arren, eragin handiagoa du ikusle bakar batek esaten dizunak hiru mila pertsonen oihukatzen dizutenak baino. Gaztetxoan partida batean guraso batek helarazten dizun iraina kontuan hartzen duzu, jende askok batera abesten dizuna ez. Denetik esaten uzten zaie ikusleei, eta horren errudun guztiok gara: ez epaileak bakarrik, ikusleak ere bai. Irabazteko hezten gaituzte, edozein eratarira irabazteko: "edozein eratarira" horretan mugak jartzea guztion lana da. Irainak futboleko zati dira, futbol hezkuntza da: pilotaleku batean ez duzu inoiz ikusiko ikuslegoa pilotariei sekulakoak esaten.

Gertatu zaizu inoiz xeblekeriarik partidaren batean?

Asko izan ditut, baina futbol hezkuntzari buruz hitz egin dugunarekin lotuta, Ondarrun jubenilekin gertatutakoa kontatuko dut: norgehiagoka hartan ikusleetako bat kalera bidali nuen. Guraso bat kontrako taldeko atearen atzean zegoen atezainari sekulakoak esaten, eta atezaina negarrez hasteko zorian zen. Partida gelditu eta taldeko arduradunari hauxe esan nion: "bera joaten da edo neu joango nauk".

Gehienetan gehiago gustatuko zaizu talde bat bestea baino, erraza al da lehentasunak alde batera utzita objektiboki epaitzea?

Bizi honetan bi elkarren alboan jarriz gero, beti dugu nahiago bat edo beste; baina jarrera hori alde batera utzi behar duzu. Gurasoek bi haur badituzte, ezin dute bat bestea baino hobeto tratatu portatera hobea duelako, biek berdin jokatu behar duzu. Taldeak eta euren curriculumak ezagutzen dituzu, haiekin ibili zara; baina ezin zara joko horretan erori.

Noiz eta zergatik erabaki duzu mundu hau utzea?

2010ean aita izan nintzen. Lehen haurrarekin nahiko ondo moldatzen ginen, baina orain bigarrena izan dugu, eta zailagoa da. Futbol profesionalera iritsi izan banintz, jarraituko nuke, baina ez da hala izan. Nire familiak bete egiten nau: pertsonalki eta denboraz, eta ez dut gehiegi faltan botatzen futbola.

Aurten omenaldia egin dizu Lagun Onak futbol taldeak: urte hauetako lana baloratu izan dela sentitu al duzu?

Bai, noski. Gainera, Lagun onak beti oso ongi portatu izan da nirekin. Momentu txarretan beti oroitu izan dira nitaz eta taldekotzat hartu izan naute urte guzti haue-tan. Behar izan dudan guztietan lagundu didate, indarrak ematen eta baita euren balibideekin ere. Omenaldia oso berezia izan zen niretzat, hunkitu egin nintzen.*

ERREZILEN
SALGAI

Enbargatutako 6 txalet adosatu, estreinatu gabeak. 180 m2, 4 logela, 2 bainugela eta garajea.

Orain 60.000 €-ko beherapenarekin eta konstruktoreak zuen preziotik 120.000 €-ko jaitsierarekin.

139.995 €-tik hasita - Finantziazioa %100

INFORMA ZAITEZ
IMANOL 879.117.116

Parte hartzeko moduak

U

dazkena iritsi da eta berekin deialdi berri bat igorri zaigu hauteskundeetan parte-hartzeko. Denboraldika egiten zaigun deialdia, derrigorrezkoa politikoentzat zeren beraiek behartuta daude legez herritarrei hautatzeko aukera ematera. Berritro ere gure etxeetara iritsiko dira alderdien programak eta hautagaien listak. Berritro ere entzungo ditugu bakoitzaren adierazpen borobilak eta hurrengo legealdirako zinak. Baina nahikoa ote?

Eta ez da parte-hartzea auzitan dagoena soilik. Batzuentzat hauteskundeetan ez parte-hartzea da aukera egokiena erakundeiei beren haserrea adierazteko. Baina kontua izan daiteke, herritarren parte-hartzea soilik orain arte egin dugun moduan egin daiteke? Edo posible da beste modu batean egitea?

Galderak pixka bat konplexuak izan daitezke baina uste baino sakontasun handiagoa izan dezakete. Orain arte ezagututako politikan parte-hartzeko sisteman alderdi politikoek lista itxiak aurkezten dizkigute beraiei osotasunean babesa eman edo ez emateko. Ez dago aukerarik hautagaien ordena aldatzeko. Edo, nahiz eta batzuentzat astakeria iruditu, alderdi desberdinetako hautagaiak aukeratzeko. Sistema honen arabera, alderdi politikoaren esku gelditzen da zein izango diren hautetsiak erabakitzea, zeren logikoki listan zauden lekua askotan erabakigarria da zure hautetsia izateko aukeretan.

Oraindik haratago, alderdia da aukeratzen dena; ez hautagaien egokitasuna aurkezten diren kargurako. Hau da orain arte ezagutu dugun sistema eta antza alderdi politiko gehienak eroso daude sistema honekin. Badi-rudi, alderdi handiak, batez ere, beldur direla ateak parte-hartzeari gehiegi irekitzeko.

Alpeetako oihartzuna

Baina bada beste modurik politikan parte-hartzeko? Adibideak badaude eta praktikara eman dira. Suitza da horren adibide bat.



markel mendizabal

Lista irekiak dituzte parte-hartzeari dagokionez, eta hautesleek nahi duten hautagaia aukera dezakete

Baina bertako ereduak ez dio soilik men egiten parte-hartzeko moduari, politikoen perfilari ere bai. Biak eredugarriak izan daitezke politika ikuspegi berri batetik ikusteko.

Parte-hartzeari dagokionez lista irekiak dituzte eta hautesleek nahi duten hautagaia aukera dezakete, hala moduko kiniela politikoa balitza bezala. Hautagaien ezagutza handiagoa eskatzen du eredu honek, baina aberasgarria da hautagai horiek beraien eskarmentu eta prestakuntza maila agerian jarri behar dituztelako. Lan gehiago guretzat, baina baita ere gure hitza erakundeetan ordezkatu nahi dutenentzat ere.

Politikoen perfilari dagokionez Alpeetako herrialdean politikari gutxi baino ez dira bizi politikatik, soldata jasoaz, eta zentzu batean politikari profesionalak uxatzen dituzte. Hau da, politika herriari zerbitzu baino gehiago beraien diru korronteei zerbitzu ona uste dutenena hain zuzen.

Ez da parte-hartzeko eredu U21-ko hauteskundeetan auzitan dagoena, baina egiten diren aukerak akaso eragina izan dezakete etorkizuneko politika egiteko moduetan. ✘



1.solairuan gaude

urrategideko
altzariak & sukaldeak



Arretxe Kalea 9 - 1. Solairua
20730 Azpeitia (Gipuzkoa)
Telf. 943 85 72 44 · Fax. 943 85 13 14
urrategideko@urrategi.eu
www.mueblesurrategi.es



Etxetik gertu

D

22an

erio 2012ko irailaren

Kaixo ama,

Sukaldeko mahaian nago hil honetako artikulua idazten, patxada ederrean, nire ezker aldeko leiho ondotik argi piloa sartzen delarik. Besoko mina eta belauneko golpea nabari ditut, aurreko pala partidako ajeak (txarrena galdu egin genuela).

Eguerdia da eta bakea da nagusi auzoan eta aurreko parkean, ia inor ez dabil. Atzean seminarioko dorrea altxatzen da, inguruko eraikuntzarik altuena, gainean antena paraboliko mordoa dituena, hotela ere bada. Bista politak ditugu izan ere; Zamudio ikusten da, Sanjuandegitik Loiolarako distantzia batera. Mendi txikiz inguratutako dagoen bailara zabala da hau eta ez du Bilbo ondoko Galdakao, Basauri eta hoiien itxitasunik.

Atsegin dut pisu hau. Balkoirik ez du baina bai leiho mordoa, gela bakoitzean bana, sordaldera ematen dutenak, hegazkin guztiak datozen aldera. Oso behetik pasatzen diren arren bertako jendea ohituta dago jada. Nik beti begiratzen dut gora ea zein konpainiatakoak diren jakiteko; Rayanairkoa bada pixkat makurtu eta kitto.

Argirik gabe geratu gara orain dela ordu laurden bat, beraz eskuz ari naiz idazten (gero ordenagailura pasa beharko). Atzo bidali behar nion Ainitzeri baina...badakizu beti azken minuturarte. Kontua da bazkaria presatzen hastera gindoazela; Yasminak prest zituena jada sukaldeko taularen gainean kalabazina, berenjena, azenarioa, piperra, tomate eta porru bat, guztiak txukun-txukun jarrita arrosa egiteko. Ah! Aitaren perretxikoak kristorenak zeuden, beti bezala! Zure gailetak, berriz, guztiak amaitu ditugu. Artistak zarete biok ere, ze penaz ez ikasi izana, daukagun bitartean aprobetxatuko dugu behintzat. Azkenen, gosea pixkat engainatzeko urdaiazpiko eta gazta pintxo bana jan dugu, mami bi-



iosu salegi

|| Ah! Aitaren perretxikoak kristorenak zeuden, beti bezala! Zure gailetak, berriz, guztiak amaitu ditugu

guneko ogi zuriarekin lagunduta. Ez dakizu zein ogi gozoa egiten duten hemen; guztiz artesanala, egun gutxi ikusten den hoietakoa.

Okindegikoak badaki euskaraz, nik egunero egiten diot behintzat. Bestela apenas entzuten den kalem eta.

Hemen gehien saltzen den egunkaria Deia da, badakizu PNV koena, Horko PSOEko Diarioren pare edo. Okindegiko tontorretan begiratu besterik ez dago.

Supermerkatuko gertakaria

Atzo Erkoreka supermerkatuara joan ginen ardo botila bat erostera eta bizitzan lehen aldiz eta 32 urterekin karneta eskatu zidaten. Kaxako emakumeak eskatu ere.

-Karneta? Zertarako?

-Ardoagatik, ea hamazortzira iristen zareten jakiteko.

-Horren gazte aurpegia ikusten al didazu?

-Gaur egun ez dago jakiterik.

Zur eta lur geratu nintzen. Yasminak bere ume aurpegiagatik izango zela esan zidan.

Horrela ba kontuak. Gaur gauean zinera joango gara. Txikia da baina merkea, 4 euro. Zinemaldirako ez zaigu iristen baina berdin gozatuko dugula uste dut.

Muxu bat eta laister arte

losu✘



Aitzealdenk! zuzenean 02

Sanagustin kulturgunea / Azpeitia / 2012ko udazkena



Urriak
19
ostirala

23:00 - 10€

MOBYDICK ANAI-ARREBAK GRISES

Urriak
20
larunbata

23:00 - 10€

AMA SĄY LISABÖ DJ MAKALA

*sarrerak+info> aitzealdenk.net
> sanagustinkulturgunea.net



Antolatzailea:

 Sanagustin
kulturgunea

Azpeitiako Kultur Mundua
AKM

||| HIZKUNTZ ESKUBIDEAK |||



▲ **GORA.** Euskarak eskertuko dizu.

Erdi aroko stock azokan postu guztietan irakur zitekeen oharra zen. Euskara hutsean, noski! Beraz, erosterako bi aldiz pentsatu. 📧 **Uztarría**

▼ **BEHERA.** Euskarari BEZa majo aplikatu diote bada!

Badirudi euskara garesti samar dutela. Saltoki, jatetxe eta abarretako kartelak euskararatzeko zerbitzua eskaintzen du Udal Euskara Patronatuak. 📧 **Uztarría***



Erika Olaizola.

||| **ESANA DAGO** |||

||| “Etapla berri bat hasi dut eta neure puntua topatu beharko diot”

ERIKA OLAIZOLA
aktorea

||| “Antzezlan hau erronka da, aktore eta pertsona gisa”

LIBE ARANBURU
aktorea

||| “Argazki ederrak ateratzeko ondo planifikatu behar da lana”

JUAN JOXE AGIRRE
argazkilaria

||| “Inoiz ez dugu aurreikusi Corrugados ixtea”

ALFONSO GALLARDO
TALDEA
Corrugadoseko jabeak



AIZPURU AUTOAK

Landeta Auzoa - Tel.: 943 81 23 59
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA

aizpuru@aizpuru.net

“KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

URBISTONDO MARGOAK

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81

Aitaren barkamen eskaria bere bi alabei



txetxu urbieta

Aita prebarikatzaillea naizenaren uste osoa dut. Eta koldarra, aita koldarra. Nire bi alabei haurtzaroan jolasteko duten eskubidea ukatzen diet etorkizun oparoaren izenean. Oraina ukatu inoiz baino beltzagoa ikusten den etorkizuna bermatu nahian.

Psikologo, pedagogo, hezitzaile, irakasle eta ez dakit zer guztiak sutan jarriko bazaizkit ere, pekatua arindu nahian, barruak ustu beharrean nago.

Txikitan ikasle ona izan nintzen baina eskolaz kanpo kolpe zorrik ez nuen jotzen. Jolasean hezi nintzen, ezer gutxiarekin haurtzaro zo-

riotsua izan nuen. Eta tonto integrala atera ez naizelakoan nago.

Gaur egun eskola da gutxienekoa. Eskolara joan aurretik igerira; bazkaldu orduko ingelese; otartekoa jateko astirik gabe musika-eskolara; handik korrika eta presaka teknifikazioz; eta oraindik etxeko lanak egiteko. Haurrak, ardiak bailiran, ikuluz ikulu darabilzkiaren sentsazioa dut. Baina larrerik gabe ldiababal gaztarik ez. Eta beti artzaina aurretik eta bizkarzaina atzetik, inoiz bakarrik ez.

Eduki-obesoek etorkizun argirik ez dute, talentuak irekiko ditu ateak, eta talentua urria

da. Gure txikientzat onena nahi badugu, gero zailduko zaienez, umetan behintzat zoriotsu izan bitez. Txikitako zorionak, handitako zoriona zihurtatzen ez badu ere, izandakoa inork ez die kenduko. "Ez, ez, ez, haurren jolasetan murrizketarik ez". Haurrak parkera eta gurasoak eskolaz kanpoko ikastaroetara, ea lehen ikasi ez genuena orain ikasten dugun.

'Atte, gaur zer?': 'Gaur... goazen Loiolara jolasea, ze demonio'. Nik neure buruari barkatuko ez diodana ea nere bi rubiek egunen batean barkatzen didaten.*

IKUSTEKOA!



▲HAU KUXIDADEA!

Merienda ederra egin dute baten batzuek, hainbeste gozoki jan eta freskagarri edanda. Baina, ondoren, sortutako zaborra sailkatu eta hura behar bezala dagokion ontzira botatzen ez dira ez asko nekatu. Hondakinak guztion arazoa direla gero eta hedatuagoa den ideia da, baina argi dago mezua ez zaigula denoi iritsi. Uztarria*

IRAILEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN...



1936ko gerra aztergai

ZARAUTZ. Lan interesgarria eta beharrezkoa egiten ari da, baina nik azpeitiar bezala nahiago nuke garai horretako Azpeitiko historia aztertuko balu. Ea Azpeitian norbaitek heltzen dion lan horri. Izan ere badira, argitzeko dauden gertakari beltz eta makurrak. Gorrotoa berpizteko ez, egia jakiteko eta justizia egiteko. Udalak zergatik ez du bultzatzen azterketa bat?



donato unanue



Gauzak nola aldatu...

BOTOAK. Egun albiste bilakatzen da lau gaztek Jesu-sen Lagundiko botoak egitea. Lehen hori normala zen. 1960 inguruan, Azpeitian 60 gazte baino gehiago ginen apaiz izateko ikasketak egiten. Duela 50 urteko Azpeitia eta gaurkoa oso desberdinak dira. Zein da hobe?



Bi aldeek Madrilen egindako bilera

CORRUGADOS. Zenbaitek manifestaldi mardula izan zela esango du, baina nire iritziz koxkorra izan zen. Ni ez nau asetzen, behintzat. Zenbat lagun bizi da Azpeitian? Hamalau milatik gora. Eta kopuru horretatik 600 pertsona joatea, oso jende gutxi da. Egia da haurrek eta umeek

zer joanik ez dutela. Baina, jo dezagun bada lau bat mila pertsona joateko adinean ez daudela, eta hala ere, hamar mila gelditzen zaizkigu. Eta hamar milako kopurutik 600 joatea oso gutxi da. Egoera gorrian aurkitzen diren herrikideentzat benetan babes eta laguntza gutxi da.✳

INKESTA

kirol jarduera edo ikastaro batetan izena eman duzu?

 Ainitze Agirrezabala

LOREA ASTIGARRAGA

langilea



"Neu ez naiz inora ere apuntatu, frutadendako lanarekin nahikoa badut. Baina nire seme-alabak bai. Semeak 14 urte ditu eta esku pilotan eta gitarra-eskolan eman du izena. Alabak 8 urte ditu eta euskal dantzetan hasi da".

IRATI ASTIAZARAN

ikaslea



"Lau urte ditut eta aurtengo ikasturtean Itsasin hasi naiz euskal dantzak ikasten. Taldea 15 bat lagunek osatez dugu eta astean behin joaten naiz. Oso dantzaria naiz".

IZAR ARRIETA

ikaslea



"Bigarren urtez jarraian Itsasin eman dut izena. Astean behin joaten naiz. Horrez gain, ingeleseko eskolan ere hasi naiz. Baita saskibaloian eta futbolearen ere".

NAHIA ODRIOZOLA

ikaslea




"Iaz igerian egitera animatu nintzen eta aurturten ere eman dut izena igeriketari. Astean bi aldiz joaten naiz, arratsaldean. Horrez gain, atletismoan hasteko asmoa ere badut".*

Esperimentatzea?

Udan zehar PNVkoak ikusi ditut mahaitxoak jarri eta firmak biltzen, hondakinak atez ate biltzearen aurka. Ezin esan gazteak zirenik sinadura eske zebiltzanak, ez euren izena orritxoetan idazten zutenak ere. Sintomatikoa iruditu zitzaidan, eta agian baita etorkizunaren iragarlea ere, PNVko militante eta jarraitzaileen adina.

Izan ere, eredu kontserbadore eta maskulino batekin lotzen ditugu bai EAJ, eta orokorrean politikariak. Gazte askorentzako "karkak" dira, urrun gelditzen zaizkigu, eta ez dugu hauetaz ezer jakin nahi.

Bitartean, gazteon egoera ez da makala. Lana gutxi, ikastetarako luzatzea behartuak asko eta asko, prekarietatearen besteak... Gainera, komunikabideek "nini" belaunaldi bezala izendatu gaituzte, ez lan ez ikasketarik nahi ez duen belaunaldia, alferria, sofatan etzanda egon eta porroak erretzen besterik ez dakiten gazte arduragabeak omen gara. Azken mende-




yuri agirre

etan lehen aldiz, gure gurasoek baino bizi-baldintza txarragoak izango dituen belaunaldia gara, eta gainera horrelakoak entzun behar! Arduragabeak, gure bizitzak politikariaren esku utziko bagenu izango ginateke.

Poltronetan goxo-goxo, epe laburreko irabaziak itsututa ibili dira, pertsonen, herrien nahiz ingurunearen etorkizuna kontuan hartu gabe. Orain, ondortzen ari den barkuan zuloak nola estali ez dakitela dabilta. Eredu oso batek huts egin du.

Ez dira izango adindunak, eskema zaharretan iltzatuta daudenak, honi buelta emango diotenak. Eredu berriak sortzekotan, gazteongandik izango da, sarri esperientziarik ez izateak esperimentatzea ekartzen baitu berekin, sormena.

Noski, ez dugu beti asmatuko. Baina bidean eroriko garela jakinaren gainean izanik, bidea egiten lagunduko diguten tresnak sortu behar ditugu.*

galdetzen hasita, bidegorria Luzatzeko Lanak probestuz, garmendipeko anexoa txukuntzeko asmorik ba al da?  Uztarria

Erljioen etorkizuna

Duela 40 urte egindako aurreikuspen guztien kontra, erlijioak eta erlijioek bizirik diraute oraindik (onerako ala txarrerako? Hori beste kontu bat da).

Gaur ere badira erlijioen etorkizunari buruzko iragarpenak, eta geroak esango du zuzen ote dabil-tzan ala oker. Bi ikerketa aipatuko ditut.

Batak munduko 9 herrialde garatu hartu ditu iker-gai: Australia, Austria, Kanada, Finlandia, Irlanda, Zeelanda Berria, Herbehereak, Txekiar Errepublika eta Suitza. Erljioak daraman bilakaerari erreparatu-tuz, ikertzaileek aurreikusten dute, erlijioa luzaro gabe desagertuko dela herrialde horietan, erabat galduko dela. Ados legoke horretan Hirugarren Munduko Teologoaren Elkartearen ere, duela gutxi esana baitu erlijioa eratu handien paradigma azkene-tan dela.

Beste ikertzaile-talde batek ez ditu gauzak hain argi ikusten. Hona zer nolako erlijio-panorama iragar-tzen diguten munduan 2050 alderako: kristau-



joxe arregi

tasuna ugalduta egingo omen, Hegoaldeko herrialde-etako biztanle-kopuruaren gorakada medio eta mugimendu ebanjeliko populistaren eskutik batik bat (ez katoliko nahiz protestanteen eskutik); Islamak ere aurrera egingo bide du, baina ez Europan eta Asian; hinduismoak eta budismoak gaurko kopuruetan eutsiko omen diote, baita judaismoak ere (baina honek behera egin lezake).

Ez dut uste erlijioak erabat galduko direnik, baina uste dut erabat aldatuko direla, aldatu behar luketela. Uste dut espiritualtasunak edo arnasak bizi behar duela, ez gaurko erlijio-egiturek.

Judu bat kafetegiko terraza batean eseri omen zen agure zahar baten ondoan, eta a zer sorpresa: Jainkoa bera zen agurea! Juduak galdetzen dio: "Jainko maitea, esadazu arren, eta behingoz: zein da egiazko erlijioa?". Jainkoak irribarrez erantzuten dio: "Arrastorik ere ez, enetxoa, inoiz baitut erlijiorik praktikatu!".*



Ba nei iruitze zait gladiatorik mantendu inberko lirakela. Aspalditik datorren tradiziyue da ta.





Bisitariari bisita

Hamaika pertsona famatu bisitatu du Euzkitzek, haien egunerokoa ezagutu asmoz. Oraingoan, Uztarriak egin dio etxera bisita kazetariari. 📌📷 Ainitze Agirrezabala



▲ KANTUAN.

Iraileko hirugarren ostiralerako jarri du hitzordua Uztarriak Xabier Euzkitzerekin. Eguzkia lagun, egun ederra esnatu ere. Goizeko 10:00etan Zarauzko haren etxeko atea jo eta horrela harrapatu dugu kazetaria, Uztarriaren esperoan gitarra akorde batzuk jotzen, etxeko egongelan.



▲ SASOIAN.

Kirol pixka bat eginez hasi du eguna, Xerpa txakurra lagun duela. Dozena urte betetzera doa lau-hankakoa, eta nekatuta dago, zahartuta. Xabier, berriz, oraindik gazte, sasoiaren egoteko lasterka egin zalea da, eta Getariara bidean edo malekoian entrenatzen du.



▲ ETXETIK LANEAN.

Ekin diote ETB1eko *Bisitaria* programaren denboraldi berriari eta saioa prestatzen buru-belarri dabilta. Eguerdialdera, tartetxo bat hartu du terrazako txoko batetan duten mahaian eseri eta ordenagailua aurrean duela dei batzuk egiteko. Erredakziora joaten ez den egunetan etxetik egiten du lana.

► PARTIDAK TELEBISTAZ EMATEN.

Irailaren 7an, Amabirjinetan, Zestoako frontoian zuten hitzordua Euzkitzek eta Tolosak, pilota partidak telebistaz emateko. Tolosa eta Euzkitze, frontoietako bikote ezaguna, beti batera dabilta, hezur eta mami direlako.



▲ **LAGUN**
Aritzataldean auzo
tabernan lagun
badute Euzkitze
-argazkian, Xabier



▲ **INDARRAK HARTU ETA... LANERA**

Frontoira joan aurretik tripa betetzen, Loiola hotelean. Argazkian, Euzkitze, Joxean Tolosa pilotari ohia eta esataria, Jose Luis Landa artekaria, Euskadi Irratiko kazetari Iñaki Elortza eta garai batean Zestoan pilota partidetan enpresari aritutako Xabier Iriondo.





▶ EGIN.

uzoan dagoen Kikara
nekin elkartzeko ohitura
zek eta haren emazte Txusek
abierren eskubitara—



▲ ZALETASUNA, ARGAZKIGINTZA.

Seme-alaben jolasak, Zarauzko paisaia zoragarria... halako irudiak argazkitan jasotzea du zaletasunetako bat. Argazkian, Talaimenditik Zarauzko herriari argazkiak ateratzen.

▼ AGURRA, FAMILIAN.

Xabierrek eta Txusek hiru seme-alaba dituzte elkarrekin. Aner (10 urte), Garazi (8 urte) eta Jon (5 urte). Etxeko txikienaren bizikleta aitarenari lotu eta bi gurpilen gainean agurtu dute Uztarrria.*



Poltsikoa zulo

Krisi beteko sasoian, BEZaren igoerak deskonfiantza eta beldurra sortu ditu erosleengan, eta merkatariak kezkatuta daude. 📎📷 Ainitze Agirrezabala

U

dako oporren bueltan, irailak beti izan du aldapatsu fama. Ikasturte honetan, malda inoizko gogorrenetakoa izan da, eta krisiarekin nahikoa ez eta BEZaren igoerak alarmak piztu ditu erosleen artean. Produktu guztiei ez zaie BEZ bera aplikatu, eta Uztarriak igoera handiena izan duten sektoreetako arduradunekin hitz egin du.

%4TIK %21ERA

|||Eskolara itzultzea, inoiz baino gogorragoa

Oinarrizko elikagaiei, liburu edo egunkariei, eta babes ofizialeko etxe berriei ezartzen zaien %4ko BEZ supermurriztua ez da aldatu, baina eskola-materiala talde horretatik atera eta erregimen orokorrera pasatu dute.

Urrats paper-dendakoen esanetan "une honetan herria oso-erorita dago, baina ez da BEZaren kontua hori. Azpeitian mundu guztia jo du krisiak. Iaztik asko nabari dugu hori salmentetan. BEZaren igoera saihesteko ez dugu sumatu jendea eskola materiala iraila aurretik erosten, baina orain boligrafo bat

Família bakoitzak batez beste urtean 470 euro gehiago gastatzea eragingo du BEZ-aren igoerak

erosi behar eta askoz ere gehiago begiratzen du jendeak. Markarik merkeena eta beharrezkoa dena baino ez du erosten jendeak".

%8TIK %21ERA

|||Kultura eta ile apaintzaileen eta lore saltzaileen lana, kolokan

BEZ murriztuak ere gora egin zuen irailaren lehenetik aurrera, baina hainbat sektore talde horretatik atera eta tasa arruntera igaro dira.

Egoera horretan daude zinemak, kontzertuak, hileta zerbitzuak, ile apaindegiak, lore-dendak, gimnasioak, eta abar.

Kulturaren sektoreari kalte handia eragingo dio 13 puntuko igoerak, eta Sanagustin kulturaguneko kudeatzaile Xabier Aranbarrik adierazpenak egin ditu igoeraren aurka. "Europako hainbat herrialdetan BEZa %6-8 bitartean dute kulturaren arloan; Lehen ere, sektorea oso egoera zail eta konplexuan zegoen; politikoki kolpe batzuk ere ematen dizkiote batzuek euskal kulturari; eta orain hau... Jendeak ez dakit zer pentsatzen duen dela kultura. Guk jorratzen duguna, %99an, euskal kultura da eta gurea bezalako leku eta espektro batean zuzeneko emanaldiei astindu handia emango dio. BEZ igoera dela eta, argi dugu, ikus-entzuleei ezin diegula eragin".

Sanagustinen sarreradun ikuskizunak %20 dira, baina "pixkanaka kopurua igotzea" zuten xede. "Kulturagunak bi helburu ditu: kultur-sortzaileak sustatu eta kultur kontsumoa indartu; neurriak sortzaileei eragingo die, batik bat. Herri mugimendua gara, eta denon artean egin beharko dugu aurrera". ▶



Inaxita ile-apaindegiko Amaia eta Olatz Bereziartua ahizpak bezeroei ilea orrazten.

BEZa igotzerako kontua “behea jota” ze-goela diote Irene Altuna loredendakoek. “Lore-sorta batek 25 euro balio du, eta igorak 3,25euro garestituko luke produktua. Lehendik ere, saltoki txikiak egurtuta daude, eta gure politikagatik prezioei bere horretan eutsiko diegu; noski, horrek gure eskulana gutxietsiko du. Ospakizunetarako dirua bada-gu, baina eguneroko salmentak asko jaitsi dira krisia dela eta. Gobernuak denda txikiei ez die mesederik egin BEZa igota. Okerrena da, tristorak jota, beldurra barruraino sartuta dagoela jendea, eta komunikabideek ere ez dute batere lagutzen”.

Ile-apaintzaileena eskulana behar duen ofizioa izaki, %8ko BEZ murriztua zuen, joan den iraila arte. Eta orain, zer? Inaxita ileapaindegiko Olatz Bereziartuak adierazi duenez, “egoera aspaldian ez da onena eta gogor eragingo du gure lanean. Ohiko gastuen –argindarra, ura, telefonoa– igoera geure gain hartu badugu ere, BEZa 13 puntu igotzea ezin izan dugu saihestu. Eskaintzen duguna ez da oinarrizko zerbitzua, luxua da; nolahi ere, moralki, eta kaxotx artean nahi bada,

‘behar’ bat da, nor bere burua apain ikustek osasun puntu bat ematen baitu”.

%8TIK %10ERA

|||Zeliakoen menua, “aberatsentzat” bihurtuta

BEZ murriztuaren taldetik hainbat sektore atera badira ere, oraindik multzo horretan utzi dituzte optikak, botikak, ostalaritza edo eraldatutako elikagaiak. Halere, igoera izango dute eta zenbait sektorek eta kolektibok gogotik sumatuko dute %2ko alde hori.

Gaixotasun zeliakoak dituztenentzat, esaterako, BEZaren igoera “beste kolpe bat” izan da, euren eguneroko erosketak garestiagoak izango baitira. Euskadiko Zeliakoen Elkarteko zuzendari Mireia Apraizen esanetan, “urtean erosketetan batez beste 1.500 euro gehiago gastatzen zituen pertsona zeliakoak, eta orain zer esanik ez”. Nagore Godoy gurasoa da eta haren bi alabak, Jare eta Nora, zeliakoak. “Gure alabek oinarrizko elikagai asko jan ditzakete –patata, arroza, haragia, arraina, arrautzak, lekaleak...–, baina badira beste

batzuk glutenaren dutenak, eta espreski glutenik gabekoak erosi behar direnak: gailletak, ogia, irina, ogi birrindua. Horiek garesti daude. Adibide pare bat aipatzearen: ogi kilo batek 2,5 euro balio badu, glutenik gabeko ogi kiloak 12 euro inguru. Kanpora joan izan garenean oporretara eta, ikusi izan dugu badirela merkatal zentru handiak glutenik gabeko elikagaiak askoz ere merkeago saltzen dituztenak”. Hain juxtu, edizio honen amaieran argitaratu da albistea esanaz glutenik gabeko ogiari ere BEZ supermurriztua, %4a, ezarriko zaiola. Halere, glutenik gabeko gainontzeko produktuak %10eko zerrenda horretan mantenduko dira.

Eurek ez bezala, optiketan BEZaren igoera ez dute horrenbeste somatuko, Ostadar optikako Maixabel Zurutzak dioenez. “Eguzkitako betaurrekoa luxuzko artikulua da eta %21eko BEZa du; baina 200 euro balio duen gainontzeko produktu batean %2ko igoera ez da hainbestekoa. BEZaren igoerak baino eragin handiagoa du krisia medio dugun egoerak, eta hori erosterako garaian jendearen jarreraren nabari da. Lehen, jendeari

►berdin zitzaion betaurreko pare batek zenbat balio zuen, politena, onena erosten zuten; Ray Ban edo Armani bazen askoz hobea. Orain produktu merkeagoak erosten ditu jendeak; markako gutxi saltzen da. Kristoren beldurra sumatzen da, eta jendeak beharrezkoa duena baino ez du erosten”.

%18TIK %21ERA

III Kaltetutako sektoreentzat beste kolpe bat

Tasa arruntan zeuden produktuen BEZa ere igo da, eta arropen, autoen salmenten, edari alkoholdunen, tabakoari, argindarrari, gasari, telefonoari eta Internet zerbitzuei eragin die hiru puntuko igoera horrek.

Kotxeen salmantan, esaterako, aurretik kaltetuta zegoen sektore horri beste kolpe bat eman zaio BEZa igota. Batez beste, kotxeen prezioek 650 euro egin dute gora irailetik. Aiertza autoak kontzesionariokoen esanetan, “igoera horren aurrean, kotxea geroago erostea pentsatuta zuten hainbatek erosteketa abutzura aurreratu dute”. Irailetik aurrera, ordea, egoera okertzea espero dute. “Egoera beltza dago; jendeak lanarekin segurantzarik ez du; finantziarioa lortzea zaila da; azkenean, dena lotuta dago. Noski, kotxea beharrezkoa duenak erosiko du, baina zaharra konpondu eta etsi dezakeen lehena segituko du. Kontua pixka bat mugitzeko gobernu zentralak edo Eusko Jaurlaritzak laguntzak jarriko balituzte, jendea gehiago animatuko litzateke”.

Edari alkoholdunen kasuan ere eragin ne gaitiboa izan du igoerak. Alde Zaharreko Tabernarien Elkarteko kide batek adierazi duenez, “aisialdiari lotutako sektorea izaki, krisi garaian kaltea izaten duen lehen sektorea da. Herrian 70 tabernatik gora dago; horiez gain elkarte-gastronomikoak, jatetxeak, kafetegiak eta gazte-lokalak. Hiriburuko zifrak dira horiek. Tabernak ondoena ibiltzen dira taillerretan eta lana dagoenean. Jaitsiera nabarmena antzeman dugu, baina BEZa igo aurretik”. BEZa igo arren, prezioak bere horretan mantenduko ditugu urtea bukatu arte, behin-

tzat. Askotan egokitu izan zaigu entzutea, baina gaur egun tabernatik aberasteko inor ez dago. Argia, ura, zergak, gizarte-asegurak... dena gora; Azpeitian zortea dugu festa asko dugula, baina denbora asko baino lehen hasiko dira Azpeitian tabernak astelehentik ostiralera ixten. Datorren urteko saniazioen aurretik, berriz, taberna eta saltoki batzuk eroriko dira. Egoera oso txarra dago”.

Odriozola upategiko Zigor Odriozolaren arabera, taberneak, soziedadeek eta ostalariek edari alkoholdun gutxiago erosten diote, baina herritarrek, gehiago. “Abuztuan jende gehiago geratu da kanpora joan gabe eta hori salmentetan nabaritu dugu. Egunpasa joateko sagardo kaxa bat erostera etorri izan dira lagun koadrilak; edo hainbat lagun edo bikote elkartu eta etxeetan ere otordu gehiago egiten du jendeak. Horrelako okasioetarako, tonika, ginebra, garagardo eta ardo bereziak erosten dituzte. Baina, batetik irabazten dena, bestetik galtzen da, azkenean”.

Nolanahi ere, duela bi urte ezarri zen BEZ igoerak [%16tik 18ra] “zalaparta handiagoa”

eragin zuela dio. “Orduko hartan, ostalari bat edo bestek, BEZa igo aurretik, urte osorako ardoa erosi zuen. Izan daiteke orain esku artean askoz ere diru gutxiago izatea. Komunikabideek albisteari eman dioten tratamenduak ere jendea asalatu du. BEZa igota eragina xumea da; baina, azken lau urtetatik hona nabarmendu dugu jaitsiera handia”.

Luxuzko lurrinak eta makillajea saltzen dituzte Gotain dendan, eta hango saltzaile Ana eta Lurdes Odriozolak “oso-gaizki” hartu dute “krisi beteko garaian” BEZa igotzea. “Azken bi urteotan sekulako beherakada izan du sektoreak, eta lehen egoera zaila baldin bazegoen, igoera honekin beste ostikada bat eman digute. Luxuzko artikulua izanagatik bada jendea bere perfumeari garrantzia handia ematen diona. Krisiaren eraginez erosketak joeretan aldaketak somatu ditugu; 100 ml-ko lurrin-flaskoa erosi beharrean 50ekoa erostea, edo genero merkeagoa eskaintzen duten marka edo etxeetara jotzea. Momentuz, prezioak ez ditugu ukitu ere egin, baina urte berriarekin egokitu beharko ditugu”.*

Erregaiak inoiz baino garestiago

III Erregaien prezioen igoera nahikoa ez, eta, gainera, gehiago garestitu da BEZa igota. Irailetik, erregaien gaineko BEZa %18tik %21era igo dute. Hori horrela, gasolinaren prezioa 3,6 zentimo garestitu da litroko, eta gasolioarena 3,5. Hortaz, erregaien batez besteko prezioei BEZa gehituz gero, gasolinaren prezioa litroko 1,514 euro izango da; gasolioarena 1,427. Gasolinaren prezioa %11,90 garestitu da urtebetean, eta gasolioarena, %11,41.

Erregaia eguneroko behar dutenek nabaritutako dute gehien BEZaren igoera. Joxe Orbegozo ‘Kortaberri’ garraiolaria da. Egurretarako kamioia du eta 300 litroko depositoa betetzea lehen 300 euro kostatzen zitzaion; irailetik aurrera, berriz, 350 euro. Erregaia merkeago lortzeko hainbat kamioilariak erregai-

hornigailua dute Munategin. “Ni ez nago talde horretan; baina Azpeitiko eta Azkoitiko gasolindegiekin tratua eginda dugu, erregaia merkeago eskuratzeko”.

Azken aldian, erregai-lapurretak “asko ugari” direla dio. “Kamioiak barruan gordetzen ditugu gauez, baina lehengoan egurrez kargatuta, altuera handiegia zuten eta kanpoan utzi genituen, eta semeari gasoila lapurtu zitoten. Depositoaren tapa irekita uzten dugu, bestela depositoa zulatzen dute; eta hobe da gasolina harrapatzea, depositoa zulatzea baino. Kontua gero eta estuago dago. Gu mendian aritzen gara eta tira, baina errepedean eguneroko kilometro pila egin behar dutenek... Autopistak gero eta garestiago; gero eta presa gehiago eta takografoaren mende ibili behar...”.*



CITROËN 943 811 915 - AZPEITIA
aiertzaautoak@telefonica.net


**Fisioterapeuta baten laguntzarekin,
baloiarekin yoga egin eta gorputza
zaintzen ikasi.**

**Talde txikietan
Ekilore zentruan**



Tlf: 685 725 216

Bizitzea merkeago

Ehorztetxeko zerbitzuaren beharra guztiok izango dugu, lehenxeago edo geroxeago. Sektore honi aplikatu zaion BEZa medio, ordea, inork ez dezala pentsatu hiltzea merkea denik.  A. Agirrezabala

Arrastaka bizitzea baino hiltzea hobe, esapideak sarritan entzun izan ohi dira egoera zailean daudenen ahotik. Horrek ez du esan nahi, ordea, hiltzea merke

ateratzen denik. Behin hildakoan, hilkutxa bat gutxienez behar da, eta hori bera ez da merkea, eta sektore horri aurrerantzean aplikatuko zaion BEZarekin, gutxia-

go. Eta, hori bai ez dela luxu bat. Ez da eguneroko ogia, baina bai lehenxeago edo geroxeago denok behar dugun zerbitzua.


Carmona ehorztetxeko ardura-

dun Antonio Carmonak adierazi duenez, "hainbesteko igoera ezustekoa izan da. %8tik %21era, puntu asko dira; oso gaizki hartu dugu albistea. Egunkarietan eskelak argitaratzea, loreak, hilkutxa... eskaintzen ditugun zerbitzu guztien gaineko BEZa igo da, eta proportzioan asko igoko da ordaindu beharreko faktura". Gorputza erraustea, zerbitzu hori baino ez da libratzen BEZaren atzaparretatik, udaltasak direlako.


Egunkarietan argitaratzeko eskelak izan ezik, eskaintzen dituzten gainontzeko zerbitzuen prezioak azken hiru urteetan ez dituztela igo gaineratu du. Orain, ordea, BEZaren igoerak salneurriak igotzera "behartu" ditu.

Irailaren 1era arte, ehorztetxeko zerbitzuaren zenbateko osoari %8ko BEZa erantsi behar ziztaion, eta joan zen hilaz geroztik, berriz, 13 puntu gehiago; BEZ igoera dela eta, batez beste, 300-400 euro gehiago ordaindu behar da orain zerbitzu beragatik.

"Gehiegikeria"

Hartutako neurria "gehiegizkoa" dela adierazi du Carmonak. "Zerbitzu hau oinarrizkoa da, beharrezkoa; modu batera edo bestera guztiok pasatu beharra dugu hemendik, eta hain zuzen, horregatik iruditzen zait hartu duela Gobernuak erabaki hau".



Carmona ehorztetxean eskaintzen dituzten hilkutxak; %21eko BEZa dute irailaz geroztik.  **Innova Proiektuak**

arte eta diseinu ikastegia



-  **Dibujo eta eskulanak** (haurrak) 17:30/19:00
-  **Pintura** 17:30/19:00
-  **Talla** 19:30/21:00

Jose Artetxe kalea, 3
669 414 025 - 943812808
matrikula urte guztian zabalik

ORDULARI



Jose de Artetxe, 10
Tel. 943 81 52 44
20730 AZPEITIA

KIRURI



JATETXEA

Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA
Tifnoa: 943 81 55 08
Faxa: 943 15 03 62



Tuba



Abolkularitza
Finantza
Laboraleko kontablea

Gestori lanak
Finanzen administrazioa
Gestio inbiliarria

Tel: 943 157 525 Fax: 943 157 275
Euzkaleren kalea, 43 • tuba.euzkaleren@net.net

Hipotekak janda

Azpeitian ere hainbat familia dira etxea ordaindu ezinik gelditu, eta kendu dietenak. Aranbarrik kendu aurretik saltzea lortu zuen. 📌📍 Julene Frantzesena

Hipotetikoki hipotekakada, epekako kaka hipnotikoa da, baneuka eta banintza...". Hala zion Aitzol Barandiaran bertsolariak *11 bertso txar nortasun krisiari* sortako koplaren batean. Etxetik botatzea ez da bertsoarako kontua, baina zenbaitek Barandiaranen gisan pentsatuko zuen hilero-hilero banketxeari hipoteka ordaintzeko arazoak ugaritu diren honetan. Igor Aranbarrik (Azpeitia, 1978) etxea saldu zuen hipoteka ezin ordainduta gelditu aurretik: "Nire egoera ekonomikoa ikusita, banekien ezingo nuela etxea mantendu, ezingo nuela hipoteka ordaindu, eta egoerari buelta eman ezinda gelditu aurretik egin nion aurre arazoari".

Aranbarrik lasai eta patxadaz azaldu du gertatutakoa. Hamar hilabete ziren langabezian zegoela, eta nahiz eta langabezia-saria kobratzen egon, bazekien hilabete gutxira bukatuko zitzaiola: "Lana aurkitzeko esperantza gutxirekin, baina saiatu egin nintzen pare bat hilabetean. Zain egon nintzen, eta ahal nuen bitartean etxeak neurea izaten jarraitzea nahi nuen. Etxeari eusteko gogoa nuen, baina egoerak behartuta, urte hasieran saltzen jarri behar izan nuen".

Etxea salgai jarri aurretik "banketxeko zuzendariarekin irtenbideak aztertzen aritu" zela adierazi du azpeitiarrak: "Hipoteka ordaintzeko epea luzatu eta kopuru txikiagoak ordaintzea zen aukeretako bat. Agonia luzatzea, alegia. Bestalde, esan zidaten langabe-



Etxea ordaintzeko hipotekan sartu, eta etxerik gabe eta dirurik gabe gelditzeko arriskuan.

zia-saria kobratzea bukatzen nuenean, hipotekaren ordeztzea bankuari ematea zela bigarren aukera”.

Ez bata eta ez bestea. “Egoera luzaterik ez nuen nahi. Argi nuen hipoteka ordaindu gabe, gehienez, bi hilabete egongo nintzela. Bestela, bankuari ordaindu beharreko kopurua handitu egingo zen, eta ez nengoen banketxeari dirua oparitzeko prest”, adierazi du. Joan den martxoaren 19an bukatzen zitaia langabezia-saria, eta urtarrilean jarri zuen salgai etxea. Langabezia-saria kobratzeari utzi, eta bi egunera aurkitu zuen eroslea.

Egoera ez zela “traumatikoa” izan dio: “Duela urte batzuk etxea edukitzea nahi nuen, eta lortu egin nuen. Neure etxea asko disfrutatu dut, eta garrantzitsua izan da pauso hori. Baina, horrexegatik, zehazki, argi nuen ezin nuela niretzat hain ona izan den zerbait txar bihurtu. Hori dela eta, bizitzako etapa berri bat bailliztan hartu nuen gertatutakoa”.

Etxea galtzeak “pena” eman ziola aitortu du. “Oso materialistak izateko hezten gaituz-

te txikitatik eta etxea ezin mantentzea porrot moduan hartzen du jendeak”, gaineratu du. Hipoteka-maileguaren kuota ordaindu gabeko hirugarren edo laugarren hilean hasten dira, normalean, etxea kentzeko tramiteak. Horren aurrean, bankuek zordunaren egoera aztertu eta hipotekari aurre egiteko modurik balego negoziazioa ekiten dute, baina baldin eta hipotekari erantzun ezinik badago bezeroa, bide judiziala zabaltzen dute. Elkarrizketatua, “bankua atzetik segika hasi baino lehen” hasi zen pausoak ematen, eta “horrek laguntzen du lasaiago egoten”, esan du. “Horrelako egoeren aurrean gauza eta ikuspuntu txarrak soilik ikusten ditu jendeak, eta nik lortu nuen alde ona bilatzea”.

“Etxea erosi nuenean ez nintzen pentsatzen jarri zer gertatuko zen etorkizunean. Lanean nengoen orduan, eta kontratu fijoarekin, gainera. Etorkizuna, ordea, asko aldatzen den zerbait denez, etxea erosterakoan ez nuen pentsatu etorriko zenean. Gauzak etortzen direnean aztertu behar dira”, dio.

Inguruko babes

Etxea saltzen jarri aurretik “aukera guztiak” aztertu zituen: “Gizarte Zerbitzuetara jo nuen, baina ezin izan nuen laguntzarik jaso, izapide burokratiko batzuk ez nituelako garaiz egin”.

Etzekoen “laguntza ekonomikorik ez” zuela nahi jakinarazi du: “Etxea nirea zen, neuk erosi nuen eta arazo bihurtzekotan, neure

arazoa izan behar zuen”. Lagunei ere ez zien eskatu laguntza ekonomikorik, baina azpimarratzen du gehienek ez zutela ulertzen bere “jarrera positiboa”: “Beraietzat nik etxea galtzea edo saltzea traumatikoa zen, eta nik inguruan positibotasuna behar nuen, aurrerantzean izango nuenarekin pozten zen jendea edo gauzak ongi aterako zirela pentsatzen zuen jendea. Zoritxarrez, gehienek galtzen nuenarekin soilik pentsatzen zuten”.

Kaleratzei Stop plataformakoekin ere jarri zen harremanetan, baita bere sindikatuarekin ere. Informazioa bilatzeko eta, behar izanez gero, haien laguntza jasotzeko edota mobilizazioak egiteko jarri zen harremanetan bi erakundeekin.

Kaleratzei Stop eta mobilizazioak

laz Azpeitian zortzi familia kaleratu zituzten euren etxeetatik, eta gertaerok ez dute ohartzun handiegirik izan herrian. Badira kaleratzeen kontrako plataformak, hala nola, Kaleratzei Stop izenekoa, eta Hego Euskal Herrian hainbat mobilizazio antolatu ditu plataforma horrek.

Elkarrizketatuak jakinarazi duenez, “Oreretan eta Donostian egin izan dira kaleratzeen kontrako mobilizazioak, baina Azpeitian halako zerbait egitea zaila da”. Bere aburuz, “jendea ez zaio gustatzen beraien ‘miseriak’ erakustea, eta Azpeitian kontu horietan dagoen harrotasunarekin, nahiz eta norbere etxea defendatzeko izan, inork gutxi eman-go luke kalera ateratzeko pausoa. Kalera ateraz gero, herri guztiak jakingo luke bere egoeraren berri, eta Azpeitian, besteen aurrean ematen den irudiak garrantzia handia dauka, tamalez”.*

||| “Etxeari eusteko gogoa nuen, baina egoerak behartuta, urte hasieran salgai jarri behar izan nuen”

||| “Oreretan-eta egin izan dira kaleratzeen kontrako mobilizazioak, baina Azpeitian zaila da halako zerbait egitea”

IGOR ARANBARRI

Etxea saldu beharra izan du



||| DATUAK |||||

2.578 kaleratze. Hego Euskal Herrian iaz, 2011n, izan ziren kaleratzeok.

402 kaleratze. Pasa den urtean, Gipuzkoan jazotako kaleratze kopurua da zenbateko hori.

8 kaleratze. Joan den urtean, zortzi familia bota zituzten euren etxeetatik Azpeitian.

1.657 kaleratze. Aurtengo lehen lauhilekoan izan dira Hego Euskal Herrian; hamazortzi bat eguneko.

tonbola

MILA ESKER LAGUNTZAILE GUZTIEI

bertan
azpeitiko merkatari elkarte



Ukabi
informatika

jai-alai
JATETXEA
VIAJES EROSKI
BIDAIAK

AMAIA TABERNA

MENDIZABAL
ERRETEGIA

URTZI
taberna



GAROA
kafetegia

BAR
ORBEGOZO
ERRETEGIA

Mikel Uribe
Jatetxea

Baigera 1
Jubilatuaren Elkarteak
Hogar del jubilatado

Baigera 2
Jubilatuaren Elkarteak
Hogar del jubilatado

ONDARBIDE

LAU-BIDE



Auntxa
Emetegia



Ongi Etorri
Jatetxea



AÑOTA
Sagardotegia • Hilerria



juantxotxiki
TABERNA



aliur kafetegia

EGUZKITZA
KAFETEGIA

LARATZ
kafetegia

Viraye

JIN CLARCK


OÑATZ
taberna

anare
kafetegia



Garai
sagardotegia • txakolotegia

KIMĒTZ



Zuha

arrotabaundi
okindegia



IREDE
estetika



Malats



KIROLDEGIKO
TABERNA



HARTZUBIA
garagardotegia

uranga
kafetegia

Azpillaga
taberna

ZAKARRA

taberna
azpeitia

Ogi-Berriena

Jone & Maikar

patxo
asador • erretegia

PUB
NEGUDA



ENXE & AITA
TABERNA



uztarria

AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

|||alaitz olaizola|||



|||gurutze eizmendi|||

‘Txu-txu’-a

G

urutze. Kaixo neska! Uda eta gero hemen gaitun berriz ere. Aurten ez naun inora joan oporretara; herria zaintzen geratu naun. Hik zer egin dun?

Alaitz. Santander aldean pasatu dizkinat egun batzuk rabak eta karrakelak jaten, baina gainontzean hementxe... Aurten ez dinat hondartzarik zapaldu, eta hi, lastima!

Gurutze. Egia esan neu ere ez naun batere joan. Datorren urtean beharko din! Opor hauetan paseatzera dedikatu naun...

Alaitz. Paseoa... Gauza ederra dun bazterrak behatzeko...

Gurutze. Herriko kaleak ikusi eta Azkoiti aldera dauden baratzak eta soroak ere bai, horixe egin dinat. Pentsatzen jarrita, herri guztiek edukiko diton zerbait soberan edo faltan. Hik zer jarri edo kenduko huke gure herrian?

Alaitz. Earra haiz! Ez zaukanat alkatetzara aurkezteko asmorik, e? Etxerako bidean eguneroko ikusten dinat, eta kendu ez, baina beste erabilera bat emango nionan, zezen plazari, alegia. Antzoki grekoan bilakatuko niken. Forma aproposa zeukan, ez? Zirkulua zirkulu-erdi bilakatu eta jendea goitik behera eserita, primeran.

Gurutze. Nik, berriz, tren “txu-txu” horietako bat faltan botatzen dinat herrian. Tren museoari jarraipena emate aldera...

Alaitz. Imajinatze naun “txu-txu” horretan sartu eta batari eta besteari aio eginez... Plazatik pasatzean Oñatz tabernako barriketan daudenei ‘gero arte’ eta Loiolako elizaren parean ‘sekula arte’... Benetan ari al haiz?

Gurutze. Bene-benetan! Oporretara joaten den ehuneko gehiena “txu-txu”an ibiltzen dun. Hemen zergatik ez ba?

Alaitz. “Txu-txu”an ibiltzen direnak herria di-

|||ALAITZ. “Zezen plaza antzoki grekoan bilakatuko niken”

|||GURUTZE. “Nik, berriz, txu-txu horietako bat faltan botatzen dinat herrian”

da batean ikusten dutelako, eta gero ospa. Turismoa sustatu nahi badun, jendeak are eta mantsoago ibili beharko din. Erdi-kaleko tabernak bisitatu, zerbait erosi...

Gurutze. Ez hadi horrela jarri. “Txu-txu” aren kontua txotxakeria bat baino ez dun. Opor ondoren motorrak berotzea kosta egiten zaidan, eta “jarri edo kendu” rena galdetze alde- ra galdetu dinat.

Alaitz. Eta orain, benetan jakin nahi al dun zer jarriko niken herrian? Hi bezalako bi!

Gurutze. Oooooo! (Negarrez) Barkatu baina ezin dinat gehiago idatzi. Snif, snif... Emozionatu egin naun. Eskerrik asko.

Alaitz. Ez horregatik.

Gurutze. Emaidan “klinex” bat, mesedez.✳



Duatloia, Xanjuandegin

Lehenengo mendi duatloia antolatu dute Xanjuandegin. Guztira, 21,5 km egin beharko dituzte parte hartzaileek; 8,5 lasterka eta 13 bizikletaz. Izena ematea 16 euro ordaindu behar da. 📍 Ainitze Agirrezabala

Sanjuandegin mendi lasterketa antolatzen zuten azkenengo aldia izan zen iazkoa. Auzoko festa batzordeak, ordea, ez zuten nahi halako ekitaldi bat galdu, eta batean eta bestean mendi lasterketa asko izaten dela kontutan hartuta, Xanjuandegiko I. Mendi Duatloia antolatu dute, Euskal Herriko mendi duatloi zirkuitoaren baitan.

Antolatzaileek adierazi duteenez, duatloia Urbitarte auzoan hasiko da, Jose Antonio Agirre plazan egokitze lanak ari baitira egiten, eta 21,5 kilometroko zirkuitua izango da: 8,5 lasterka eta 13 bizikletaz. Ondoren, Barrenetxe eta Loiola auzoetatik igaroko dira lasterkariak. Ura edan ahal izateko postuak ere egongo dira ibilbidean zehar eta helmugan eta igerilekua zabalik egongo da dua-

||| DATUAK |||||

||| **Zer.** Xanjuandegiko Lehenengo Mendi Duatloia.
||| **Eguna.** Urriak 20 (zapatua). ||| **Ordua.** 16:00.
||| **Tokia.** Xanjuandegi.
||| **Antolatzailea.** Xanjuandegiko Festa Batzordea.

tloia hasi aurretik zein bukatuta koan.

Irabazleek garaikurraz gain, diru saria izango dute. Duatloian izena emateko epea zabalik dago. www.mendiduatloia.com webgunean egin daiteke, edo egunean bertan ere bai. Parte hartu nahi duenak 16 euro ordaindu beharko ditu, eta duatlian parte hartzeko baldintza bakarra 18 urte beteta izatea da.*

||| I. MENDI DUATLOIA |||||

21,5 km. Duatloian guztira egin beharreko kilometroak dira; lasterka 8,5 kilometro eta bizikletaz 13.

16 euro ordaindu behar. Aurretik izena eman daiteke www.mendiduatloia.com atarian, eta baita egunean bertan ere.*



Sanjuandegiko III. Mendi Lasterketa, parte-hartzaileak irteeratik abiatzen. ||| Urola Kostako Hitza

||| BESTERIK |||||

1 Trena eta kultura zikloa

Urolako trena, azken bidaia erakusketa izango da hilaren 5etik 30era. 10ean, berriz, **Norteko ferrokarrila** hitzaldia. 14an, **Bakarrik** komediazko antzerki mutua; **Oroimenaren bidea** bideo proiektzioa 17an, eta umeen eguna izango da 27an. ||| **Eguna.** Urriak 5etik 30era. ||| **Tokia.** Sanagustin. ||| **Antolatzailea.** Sanagustin kulturegunea eta Burdinbidearen Euskal Museoren Fundazioa.

2 IV. Zezen Beltz Asteburua

Egitarau oparoa antolatu du Zezen Beltz elkarteak. Hiru egunetan, besteak beste, sokamutur txikia, zezen txikiak, poniak, zezen-jolasen herri arteko txapelketa, txahal-saiheski jatea, Txarlotada ikuskizuna, elkartearen lokal berriaren inaugurazioa... izango dira. ||| **Eguna.** Urriak 12, 13, 14 (ostirala, zapatua, igandea). ||| **Antolatzailea.** Zezen Beltz.

3 Garagardo Azoka

Iaz bezala aurten ere bi asteburutan irekiko ditu atek garagardo festak. Guztira, hamar bat garagardo izango dira probatzeko aukeran, eta afaltzeko txerri ukondoa eta oilaskoa ere emango dute. ||| **Eguna.** Urriak 5, 6, 7, 11, 12, 13, 14. ||| **Ordua.** 20:30etik 02:00ak arte. ||| **Tokia.** Berdura Plaza. ||| **Antolatzailea.** ISB eta Bertan.*

||| Azpeitiko ekimenez informazio gehiago: uztarria.com/agenda

Mauka
berria

Laster...

**planik onenak egunero,
bertatik bertara!**

Egun-pasak familiarekin, jatetxeak, abentura,
kirol ikuskizunak, antzerkia, estetika...
merke-merke eta eskura

**Abantailak izena ematen duten
lehenengoentzat**

Urriaren 31 baino lehen
izena ematen baduzu,
parte hartuko duzu
Kanaria uharteetara
astebete doan joateko
zozketan.

Eroski bidaiak agentziaren eskutik

EROSKI bidaiak

merezi duzu


www.mauka.eu

mauka: erraz lortzen den gauza oso onuragarria.
Harluxet Hiztegi Enziklopedikoa

berria
taldea

||| SOLUZIOAK |||||

HITZ GEZIDUNAK

N	●	I	R	R	A	L	A	K	A	K	●
O	I	D	●	A	I	O	N	A	R	A	P
K	A	L	A	I	S	●	U	R	E	Z	●
Z	●	A	B	●	A	E	M	●	U	T	A
A	K	O	●	I	S	A	T	S	A	T	●
●	A	S	A	N	●	R	I	A	I	A	L
A	O	A	L	A	I	A	K	A	●	G	●
E	A	R	A	P	Z	A	H	●	A	●	
K	●	A	I	D	A	I	D	A	B	●	●
●	K	●	U	●	G	●	B	●	●	●	●

HITZ GURUTZATUAK

A	O	K	Z	A	S	U	A	V	K
L	●	A	I	K	I	S	I	U	A
I	K	I	H	E	B	●	T	U	●
O	A	S	L	A	●	I	A	T	●
K	U	A	N	●	L	D	E	A	●
A	R	A	●	O	R	U	L	B	●
E	●	A	U	T	P	A	O	●	●
A	I	A	U	H	S	U	●	R	●
K	A	E	A	R	T	A	S	A	●

||| ZEIN DA? |||||



||| ARGAZKI LEHIAKETAN ERANTZUTEKO EPEA. Urriak 22 (astelehena) ||| NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia ||| IRABAZLEARI SARIA. Odriozola upategiko ardo sorta ||| PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarria Komunikazio Taldean bazkide izan behar da ||| ZEIN DEN ADIERAZI.

||| ZURE IZEN-ABIZENAK

||| TELEFONO ZENBAKIA

||| UZTARRIAREN ABUZZUKO ARGAZKI LEHIAKETA |||||

ZEIN DA?

AINHOA ALBERDI, HARRI-JASOTZAILE HASIBERRIA

IRABAZLEA



Asier Osa Uztarriako bazkidea izan da lehiaketako 142. irabazlea. Odriozola upategiko ardo sorta irabazi du sari gisa. Argazkian, Asier Osa saritua.

ODRIOZOLA ARDOAK

ardoetan aukera zabalena
bertako produktuak eta gutxiak

Iñaki Azpiazu, 5 - Azpeitia - Tel. 943 15 13 16

Axiri poligonoa, 10 - Azkoitia 943850059 / Aitzuri kalea - Zumala 943860103



||| ELKARRIZKETA DIGITALA ||||| Imanol Zubizarreta (Iraurgi Saskibaloia)

“Beti saskibaloiaz gozaten saiatu izan naiz, inongo helbururik jarri gabe”

||| Zer sentitzen da lehen taldera igota?

Beti saskibaloiaz gozaten saiatu izan naiz, inongo helbururik jarri gabe. Orain, lehenengo taldearekin aritzeko aukera izanda, gogor entrenatuko dut, beti egin dudana bezala, hori bai, ondo pasatuz eta kirol honetaz disfrutatuz.

||| Teknikaz gain fisikoki aldaketa handia al dago?

Aldea nabaritzen da. Neuk ez dut aparteko ezer berezirik egiten. Preparatzaile fisikoarekin egiten dugu lan entrenamenduen aurretik. Behin ere ez didate eskatu dietarik egiteko; egin beharko banu, asko sufrituko nuke, denetarik eta asko jaten baitut. Bestela, bizitza bera ez zait batere aldatu. Aldaketa azpimarragarriena da kanpoan partidak ditugunean bidaiatu egin beharko dugula as-teburutan. Astegunak antzekoak izango dira, klaseak eta entrenamenduek.

||| Zer moduz hasi duzu denboraldia? Zertan duzu hobetu beharra?

Aurrendenboraldia gogorra ari da izaten, baina gustura ari gara. Aspektu denetan hobetzen saiatu behar dut: urrutiko jaurtiketetan erregularragoa izan; taldea ahalik eta ondoen gidatu, defentsan gogorragoa izan, beste jokalarientzako jaurtiketa onak bilatu...



||| Pentsatu duzu entrenatzaile modura bidea egitea, gero-ra? Zein jokalaririk izan dituzu erreferentzia bezala?

Entrenatzaile aritzea beti izan dut gustuko. Ibili naiz umeekin. Egun, ezinezkoa egiten zait, entrenamentu eta partidez gain, ikasketekin ere gogor ari naiz. Nire jokalaririk gustukoena beti joku-antolatzatzaileak izan dira: Sarunas Jasikevicius, Steve Nash, Pablo Prigioni... Azpeitiarrei dagokienez, berriz, Jon Arozena, Kepa...

||| Partida ahaztezin bat?

Iraurgiarekin zein selekzioarekin partida mordoa jokatu ditut eta horietako asko ederrak izan dira. Umetako oroitzapen ederrak ditut. Orain dela gutxi, Iraurgiko bigarren taldearekin mailaz igo ginen. Urte askoan batera gogor lan egindako lagun koadrila batek merezita jasotako saria izan zen. Lagun onak egin ditut kirol honi esker.*

||| EFEMERIDEAK |||||

1631

||| Kanpora saltzea debekatu.

Okinek herritik kanpora saltzen zuten garaia produktu horiek garestitzeko arriskua zen, eta kanpora saltzea debekatu zuten.

1638

||| Sagar gutxiko urtea.

Ura nahastetako sagardoa egiteko baimena eman zuten, sagardoa herritarrentzat izateko.

1677

||| Ura nahastea libre.

Herriko harakinari denda 06:00etan irekitzeko agindu zioten, eta arratsaldean 15:00ak aldera. Saltzeko unean, lehenetsuna komunitateko arduradunek eta apaizen neskameek zuten.

🍷 **Iturria:** Azpeitiko efemerideak.

Herria historian zehar liburua.

||| Egilea: Imanol Elias Odriozola.

||| Argitaratzailea: Uztarria Kultur Koordinakundea.*

www.uztarria.com
azpeitiko ataiye

||| eguneko albisteak ||| irakurleen erantzunak ||| eguneko argazkia ||| bideoak ||| blogak ||| inkesta ||| agenda ||| bitxikeriak
||| 'azpeitia' atala: zerbitzu publikoen ordutegia, autobusen ordutegia, telefono zenbakiak, euskara atala, farmaziak, festak,
hauteskunde denetako emaitzak, geografia, panoramikak, herriko taldeak, liburuak osorik... ||| uztarria herri aldizkari denak;
PDF formatoan ere bai ||| eguneko efemerideak ||| gida komertziala...

||| sartu sarean, eta hartu parte ||| egunero **7.000** orrialderen bisita



Zenbait min

Ohiko minetaz eta inoiz desiratzen ez ditugunez arituko gara.

Gehiegi jan eta gero kafe batzuk hartzea kaltegarria izan daiteke, sabeleko distentsio gogor bat eragin dezake. Erremedioa, sabel gainean beroa jartzea eta kamamila infusioa hartzea; eta batzuetan okadak eragitea.

Animalia koipetsuaren bankete batek behazuneko kolikoa eragin dezake. Tratamendua lehen aipatutakoa izan daiteke edo, hala behar izanez gero, botika lasaigarriak hartzea (antiespasmodikoak).


Ondutako, ketutako edo gatzetan jarritako elikagaiak edo animalien barrukiak –gibela, giltzurrunak, muinak– gehiegi janez gero, ‘gota’ eraso eragin dezake, artikulazioetako min handia, batez ere oinetako hatz lodian, edo giltzurrunetako kolikoa sortarazi. Min horiek ez dira kentzen posturak aldatuz, eta toki horietan uriko azidoz osatutako kristalak osatzen direlako dira minak hain gogorrak edo jasan ezinak. Porrusalda edo Fontdor bezalako ur asko edanez gero, une bateko soluziobidea, behintzat, ematen du.

Bukatzeke esan, ehizatutako animalien haragia oso ondo egosi edo erre behar dela, barrukiek batzuetan produktu toxikoak dituztelako.*



Julian bereziartua

AINHOA SALEGI ginekologoa



1. Noiz egin beharko litzateke lehen bisita?

Sexu harremanen hasierarekin batera.

2. Osasun bisitarik desatseginena...

Beldur gara intimitatea konpartitzeko, baina ohiturak aldatzen doaz, eta tabu hori galtzen.

3. Gizonak urologoarenagana...

45-50 urtetik gora, bai noski.

4. Bisitaren ohiko kausa?

Hilekoarekin lotutakoak.

5. Antisorgailu erabiliena?

Preserbatiboa. Gazteen artean eraztun baginala modan dago.

6. Haurdun geratu ezina...

Haurdunaldia bititzea gero eta

beranduago erabakitzen da eta hori gizonen hazi arazoei gehitzean...

7. Aholkurik?

Sexu segurua egitea.

8. Bitxikeriarik?

Baginan zenbat gauza topatu daitezken... ez sinestekoa da.*

Ainitze Agirrezabala

AZKOITIA
ERLOJU KONPONKETAK
Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

Amenabar
DENDA
gortinak, ohazalak,
edredoi nordikoak ...
Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97

Euskal Herria,34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943 15 16 40
Ekain
Larrialdiak:
943 15 16 40
ALBAITARI KLINIKA

IRENE ALTUNA
LORADENDA
Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87
www.ialtunadenda.com

DI-DA diseinua
zure lorategi edo terrazara diseinua
90€ren truke
www.kimubat.com

SEGUROS BILBAO | Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK:

- ETXE ASEGURUAK
- AUTO ASEGURUAK
- DENDA ASEGURUAK
- BIZITZA ASEGURUAK eta abar.

AURREZKIENTZAT PRODUKTU INTERESGARRIAK

Joxe Migel Muguruza
(Urola Erdirako agente eskusiboa)


Tel: 652.776.909
jm.muguruza@segurosbilbao.com

Altxorra buruan

81 urte betetzear eta belaunak nagituta baina airosa, kontatzeko asko du, gaziak eta gozoak, atzera begira jarri eta bizitakoa errepasatzean. 📝📍 Ainitze Agirrezabala



1. Jose Inazio *Naparra* ilobarekin, mendigoizalez jantzita. **2.** Iñaki ilobarekin. **3.** Zumaiako Itzurun hondartzan, bizilagunekin.



I rribarra ezpainetan, goizeko terapia saioaren ostean San Martin egoitzako bilera gelan hartu du Pilar Aizpitartek Uztarriaren bisita. Duela urtebete pasatxotik hura du bisitoki berria, eta bertan eskaintzen dioten arretarekin "kexatzeko ez" dagoela dio. "Hotel batean bezala ez, hobeto bizi gara. Noski, zorakeria esango nuke etxean baino hobeto nagoela esango banu. Nolanahi ere, etxeko ilobek noiznahi ateratzen naute egun-pasa. Oso gustura nago ni hemen".

'Puxkerrumetzea' kendu zion iloba

Txikitako eta gaztetako oroitzapenak gozo dakartzta gogora. 1931ko urriaren 12an, Pilarika egunez, jaio zen; garaiko usadioak bete behar eta egutegiaren aginduz Pilar jarri zioten izena. Hamahiru senidetan gazteena, bere senide guztiak aitaren jaiotetxean, Iturbide baserrian, jaio baziren ere, Erdikalean munduratu zen. "Sei senide baino ez nituen ezagutu, besteak aingerutan hil ziren, baina gure amak hamahiru eduki zituen sabelean". Anai-arrebetan gazteena izanagatik, ez zen izan mimatuena. "Puxker-umetzea gure anaiaren semeak, Jose Inaziok, kendu zidan, gurekin hazi baitzen hura".

Tailerrean lanean

Ahizpak etxetik kanpora neskame joan zitzaizkion; anaiak, berriz, tailerrera, soldata irabaztera. Pilar amaren zaintzan geratu zen etxean. "Haiek dirua ibiltzen zuten, eta ni beti haiei diru eske, atzetik. Niri ere ilusioa egiten zidan atzaparrean dirua ikusteak. Azkenean, etxetik kanpo lanean hasteko anaia konbentzitu eta 16 urterekin Errebalean zen Keiller tallerrean hasi nintzen aurrena, eta Azkuenean gero. Garai hartan nire adineko emakume oso gutxi egiten zuen lana lantegian. Baina gauza bat genuen guk txarra, nobioa bilatzeko zaila; orduan hala esaten zen, 'lana egiten

zuten emakumeek ez zekitela arrautza frijitzen'. Umezale handia izan naiz betidanik, eta jendea asko harritzen da ezkongabea naizelako, baina ez zitzaidan sortu eta...".

Festazalea eta mendizalea

Berbenetara joatea bere "poza" izaten zela ere adierazi du. "Saninazioetan Burgosko militarren banda etortzen zen eta zoragarria izaten zen. Eta, erromeriak? Esaterako, Xoxoteko festetan ez zuten uzten baltsean egiten, baina Elgoibarko mendian bai, eta hara joaten ginen mendiz mendi oinez.

Aizpitartearren etxean sinestunak izan dira oso, eta igandero, goizean goiz meza entzun eta anaia Joxek eta biek elkarrekin mendira joateko ohitura zuten. "Xoxoten emandako hamar domina jasota dauzkat oraindik. Hamar mendi desberdin egin behar izaten ziren domina jaso ahal izateko. Azkenerako uzten genuen Arauntza, guztietan errazena zelako".

Elkarrizketa bukatzerako bazkaltzeko garaia heldu zaio. Burua argi eta umorea fresko, berriz ere nahi dugunean bisitan joateko esanaz agurtu du Uztarria.*

Antzerkigintza, zaletasuna

||| Pilar Aizpitarteren bizitzan ezin da aitatzeke utzi antzerkirako zuen pasioa. 60. hamarkadan elizaren babesean, Enrike Zurutzak 'Pasioa' lana egokitu eta 'Odol eskaintza' eskaini zuten. "Obra hartan koruan kantatzen nuen nik, baina Maria Magdalarena egiteko eskatu zidan Enrikek. Ez nuen hitzik egin behar, negar bakarrik. Soreasun antzeztu genuen batean nire ahizpek ama eramane zuten. Agertokian negarrez ikusi eta, ondoren, etxean hala esan zidan: 'Lotsagabe zikina! Hainbeste jende han eta hi negarrez!'. Pasioarena zoragarria izan zen, Victoria Eugenia eta guzti antzeztu genuen".

Urte batzuk geroago, Imanol Eliasek hartu zuen zuzendari testigua. "Obra guztietan hartu nuen parte. Oraindik ere entsegu-paper guztiak Santutxoko etxean ditut gordeta. Gidoia nahikoa erraz ikasten nuen eta tallerrean testua esan eta esan aritzen nintzen, errepassoan. Juanito Bikendi antzerki-laguna nuen. Zenbat adarjotze egin ote zidan? Artista zen! Testua ahazten zitzaion, momentuan asmatutakoa esaten zuen, eta hari segi egin behar izaten nion nik. Adi egoten nintzen eta

inprobisatuta ondo egiten genuen aurrera".

Gero, 'Goenkale'-tik deitu zioten. "Neskamearena egiten nuen. Esateko hitz batzuk banituen gustura joaten nintzen, baina tabernako atea ireki, eta barran eserita isilik egote horrek.. Ezer ere ez zidan esaten horrek, eta laga egin nuen. Lehen bai, barre egiten genuen; orain, berriz, ez dut ikusi ere egiten. Drogak eta hilketa, eta hango ohea eta musu ematea. Horiek ez dira Euskal Herriko antzerkiak".*



Hiru morroikiak (1987), Iñaki Bergararekin.

lentzeria mertzeria
jose artetxe, 16
nabar

ostadar optika
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK
Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA
Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

Koh Tao
OSAGARRIAK
Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

domusa

TELEFONO ZENBAKIAK

TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
INEM	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Aitonena I	81 51 71
Aitonena II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	81 11 00
Berria	94 30 40 30
Gara	94 31 69 99
Noticias (berriemailea)	68 70 50 06
DV (berriemailea)	61 08 12 91
Argia	94 33 15 45
Nabarra	94 82 27 25
Arrate Irratia (berriemailea)	81 26 32
Loiola Herri Irratia	81 44 58
Euskadi Irratia	94 01 23 00
Erlo Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Izarraitz Telebista	85 13 05
ETB	94 30 17 05

ALDERDI POLITIKOAK

EAJ	81 55 70
-----	----------

FARMAZIAK (URRIA)

EGUNEZ

1-2-3-4-5-6-7-10-31	8-18-23-26-29	9-17-22-27-28	11-15-20-21-25	12-13-14-16-19-24-30
Aranburu (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).
943 811350	943 811274	943 815974	943 080258	943 811949

GAUEZ

1-2-3-4-5-6-7	8-13-14	9-10-29	11-30-31	12	15-16-17-18-19-20-21-22-23-24-25-26-27-28
Aranburu (Azpeitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Jacome (Azpeitia).
943 811350	943 851235	943 851966	943 850660	943 852989	943 080258

LARRIALDIAK

112

ODOL-EMAILEAK

Urriaren 24an izango dute hitzordua, 18:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

Hautetsi Independentistak	15 72 00
EA	81 00 11
EB-Aralar	15 72 00

SINDIKATUAK

ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

KULTURA-EUSKARA

Euskara Patronatoa	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	94 35 92 00
Bai Euskarari	90 24 03 26

IKASTETXEAK

Iraurgi	81 02 10
Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28

BESTERIK

UGLE (Urolako gay-lesbian.)	273 posta
Xoxoteko aterpea	58 10 07
Eregi Euskara-Komunikazio Zerbitzua	

943 08 06 88

ORDUTEGIAK

UDALETXEA ||| Asteguna: 09:00-13:30 ||| Larunbata: 09:00-13:00 UDALETXEA ||| Egun osoz irekita egoten da ANBULATEGIA ||| Egun osoz irekita egoten da IGERILEKUA ||| Astelehena: 14:00-21:00 ||| Beste astegunak: 07:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 ||| Igandea eta jai egunak: 09:00-13:00 ||| Kanpoko igerilekua: ekaina arte itxita KIROLDEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 UDAL LIBURUTEGIA ||| Astegunak: 10:00-13:00, 16:00-20:00 ||| Larunbata: 10:00-13:00 ||| Udan, Gabonetan: 08:30-13:30 ZAPO TXOKO ||| Asteartea-ostirala: 17:00-20:30 ||| Larunbata: 16:00-20:30

ERABILGARRI



UNIBERTSITATERA.

Urola Kostatik Bilboko, Deustuko, Leioako eta Gasteizko unibertsitate-campusetara joan nahi duten ikasleek autobus zerbitzua dute, Piper Unibertsitarioren Elkargo antolatuta.

GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUTPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07


||| autobusen ordutegi osoa:

www.uztarria.com/azpeitia/
autobusak

IVAN ASTIGARRAGA

Kolonia, Alemania

“Lanik bilatu ezin duen ikasketadun asko dator hortik”

Dena utzi eta bizimodu berri baten bila joan zen. Lan kontuak medio, ordea, hilero egiten du bisita Azpeitira.  A. Agirrezabala

Nolatan joan zinen horra?

Duela hiru urte etorri nintzen, beste haize batzuen bila. Ingeniaritza ikasi eta lan finkoa nuen, baina lantegian EREan sartu, negoziatu eta alde egin nuen. Ingurukoek ez nengoe-la burutik ondo zioten, ezin zuten ulertu dena utzi eta han bizimodu berri bat hastea.

Zer moduz integratu zara horra?

Alemanian banituen lagun errusiarrak, eta horrek babesa eman zidan, baina lehen bi urteak zailak izan ziren. Integratzeko arazoak izan nituen: kulturen arteko talka; hizkuntza... Lehenengo sei hilabeteak pasatu nituen hizkuntza ikasten. Gero segituan bilatu nuen lana. Makina-erremintako komertziala naiz.

Horko zer gustatzen zaizu gehiena?

Kolonia hiria. Jendea oso tolerantea da, irekia. Zapatu gauean hor kalera bakarrik irten eta bertsoak ateratzen dizkizute. Hemen tabernara bakarrik joan eta albokoarekin hitz egiten hasten dira. Giro jatorra, ona dago.

Eta, gutxiena?

Neguan eguzkia indarrrik gabe dago.

Zer botatzen duzu gehiena faltan?

Ilobekin jolastea. Gainontzekoa igoal zait.

Euskaldunik ezagutu al duzu hor?

Gutxi. Orain asko ari dira etortzen. Kanean, metroan, tabernetan... gaztelania asko entzuten da. Inbasioa. Aurten 10.000 lagun etorri dira; eta iaz beste hainbeste. Hor lanik bilatu ezin duen ikasketadun jendea dator.

Horko zer ekarriko zenuke Azpeitira?

Ez dut nahi Azpeitiko jendea epaituta sentitzea, baina hemen oso irekiak dira, eta gu haiekin alderatuta oso itxiak. Hori da ekarriko nukena, harremanak-eta egiterakoan gehiago soltatzea. Coloniako karnabalak ere bai. Azaroaren 11n hasi eta gurekin batera bukatzen dituzte. Eta denbora horretan beti bilatzen duzu jendea asteburuetan disfrazatuta eta beti dago zeozer. Hiriaren identitate puntua da.

Aurrera begirako zer asmo duzu?

Neuk ere ba al dakit ba! Lanegatik asko bidaiatzen dut eta hilean astebete Azpeitian pasatzen dut. Herriminik ez daukat. Gero eta erosoago nago hemen. Igoal bertan geratuko naiz. Inork hona etorri nahiko balu, jar dila nirekin harremanetan: ivanastigarra-ga@hotmail.com.*



1. Koloniako karnabaletan fraidez jantzita, lagun batekin. 2. Kolonia hiriburuko parke batean. 3. Lanean ateratako argazkia.



2

7 izan ditu hilak. irailak. urtero ez bezala, 1975an bezala. eta kanposantura bidea hartu dugu poetarekin. kanposantuko nuarbe.

Pinudi baten erdian kanposantuko nuarbe
Pinudi baten erdian eta pinurik ankerrenak
Harresiaz barruan zazpiak sustrai eginik hil
aditzean

Afusilatu guztien hezurren bila
Inor ez dadin altxa bizirik
Iraun genuenon bihotzaren eske
Kanposantuko nuarbeko aldapan gora
Orduan haurrak zirenak
Zazpi pinuak zain dauzkate
Kanposantuan atek beti zabalik nuarbek

orduan bezala abiatu gara behetik gora
oinez. hogeita hamabost urte baino gehiago
joan zaizkigu, bizitza puska ederra. joanak
joan ederrena etorkizun beti.

orduan bezala, abiatu gara kanposantuko
nuarben gora.

orduan ez bezala. ez da jendetzarik izan.
hala ere, han izan direnek munduak bilduko
lukeen surik beroena eraman dute kanpo-
santuko nuarberaino. abiatu gara aldapan
gora sigi-saga. burkideen arteko lehia bero-
rik ez. gora eta militarra. gora eta politiko-mili-
tarra. zatiketa. anjel otaegi martutenen eduki
zuten garaian gauzatua. ez omen zuen enten-
ditzen. nola zitekeen. helburu bat bera zutela
denek. alferrik. ez zuen entenditu. ez genuen
entenditu orro lehia. kanposantuko nuarbe-
koak ez ziren arrotz haien borrokak min egi-
ten digu belarrian. min egingo digu beti. he-
rrikoa genuen hila. sinbolo egin zuten. batak
bestea azpiratu nahi zuten. azpiratu zuten
han hor hemen. lekuko isil izan ginen. isiltasu-
na. erdi kalean gora erdi kalean behera txiki-
teorik ez. gora eta behera, gora eta behera
jendea, igandero bezala, igandero ez bezala
bat hartu genuen denok. jende lamara gora
eta behera isilik eta guardia zibilen *jeepa*



|||||||miel a. elustondo|||||||

|||Han izan direnek munduak
bilduko lukeen surik
beroena eraman dute
kanposantuko nuarberaino

abantadan gure lehenengo manifestazioa
izan zen haren uholdearen kontra. *jeepa* erdi-
erditik pasatzen zela, alboetara jendeak. inzi-
bilak pasatutakoan, berriz ere uholde erdi ka-
lean, etxezuritik errebaleraino. nuarbetik az-
peitirainoko martxak-eta. kanposantuko
nuarbera bisitak. fusilatuak. diktadura. itxi ga-
beko zauri betiko koldo izagirreren poeman.

Hilobian sorturik bakarrik dira ederrak larro-
sak

Eta ederra da ehortziaren gaineko bandera
Higaturik zazpi pinu luzeren erdian
Zutik etzateko
Kanposantuko nuarberainoko aldapa igaiten
ikasi

behar da
Harroak dira larrosak afusilatuaren harrobian
Eta kolore ahuspeztuak dira banderarik
amultsuena

Zazpi pinu ketsuren aurrean
Nork bat bilatu zioten hil aditzari
Haurrak zirenek

Kanposantuko nuarbek norainoko aldapa
duen ikasi genuenean.✳





Euskara Zerbitzua

- Itzulpenak eta zuzenketak
- Euskara planak

Komunikazio Zerbitzua

- Diseinua:
 - Logotipoa, papertegia...
 - Katalogoak, kartelak, diptikoak, triptikoak...
 - Aldizkariak, liburuak, liburuxkak...
 - Seinaleztapena
- Komunikazioa:
 - Prentsa bulego lanak
 - Komunikazio kanpainak
 - Mailing-ak...



horzkari
horts osasun klinika



Horts-inplanteak Aho-kirurgia Protesiak
Ortodontzia - Damon System

www.grupohorzkari.com

Iberotarren plaza, 4 behea
20730 azpeitia gipuzkoa
t. 943 81 44 50
f. 943 81 50 52

% 100
Finantziazioa

 **movilquick**
zure zerbitzu teknikoak



Zure mugikorra
erosiko dugu

bideo kentsolak
moldaketak
zerbitzu teknikoak
osagarriak

mugikorrak
askatzea
zerbitzu teknikoak
osagarriak
bigarren eskukoak

tabletak eta eramangarriak
zerbitzu teknikoak
osagarriak

espezialistak apple-n

  www.movilquick.net

Azpeitira iritsi gara
Jose de Artetxe, 8 behea
20730 Azpeitia
Tel. 943 812 231
azpeitia@movilquick.net